

LAUDIO UDALA KULTURA, KIROLAK ETA JAIAK ZERBITZUA

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko apirilaren 14an erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez, 2023. urtean kirol programak egiteko lehiaketa askeko diru-laguntzen deialdia onartu da.

DLDBN (identifikatzailea):

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>): eta Laudio Udal honen web atarian (www.laudio.eus)

Lehenengoa.- Onuradunak.

Deialdi honen bidez arautzen dira gure udalerrian 2023an norbanakoez edo kirol antolatzen dituzten elkarteek sustatutako kirol-egitasmoak.

Bigarrena.- Xedea.

Gure udalerrian 2023an kirol-egitasmoak bideratzeko diru-laguntzak ematea.

Hirugarrena.- Oinarri arautzailea.

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko apirilaren 14an hartutako erabakiaren bidez onartu zen.

Laugarrena.- Zenbatekoa.

Deialdi honetarako zuzkidura 70.000,00 eurokoa izango da. Zenbateko hori lote hauetan banatuko da:

1. Lotea: kirola modu federatuan egiten duten kirol-elkarte eta -klubentzako dirulaguntzak; lote horretatik kanpo geratzen dira urteko dirulaguntza izenduna izapidetzen zaien klubak (49.550,00 euro).
2. Lotea: ikastetxeen eskola-kirolerako dirulaguntzak (3.950,00 euros).
3. Lotea: dibertsitate funtzionala duten pertsonekin lan egiten duten kirol-elkarte eta -klubentzako dirulaguntzak (1.000,00 euros).
4. Lotea: Laudion kirol jarduera puntualak antolatzeko dirulaguntzak (3.950,00 euros).
5. Lotea: igoera- edo sailkapen-faseetan edo Laudiotik kanpoko txapelketetan parte hartzen duten kirol-elkarte eta -klubentzako dirulaguntzak (Laudiotik 40 kilometro baino gehiagora); klub eta urte bakoitzeko jaso beharreko zenbatekoa ez da inoiz 5.400,00 eurotik gorakoa izango (8.925,00 euro).

6. Lotea: kirolarientzako joan-etorrietarako bekak; jaso beharreko zenbatekoa ez da inoiz 1.300,00 eurotik gorakoa izango kirolari bakoitzeko, edo kopuru hori klub berean militatzen duten kirolarien kopuruaz zatituta ateratzen den zenbatekoa baino handiagoa (2.625,00 euro).

Gastua egotziko zaie Laudio Udaleko 2023ko aurrekontuko 0600 3411 48100 "Kultur elkarteei diru-laguntzak" diru sailari.

Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea.

Eskabideak hogeit hamar egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskaera egiteko eskabide normalizatuan, egoitza elektronikoaren bidez, pertsona juridikoen kasuan, eta egoitza elektronikoaren bidez edo Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bidez, pertsona fisikoen kasuan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean zehaztutako moduetan.

Laudio, 2023ko apirilaren 14a
Alkate-udalburua, ANDER AÑIBARRO MAESTRE